

Literatura

Kulturaren Euskal Planaren Literaturaren taldearen
bileretan oinarritutako txostena

2003ko Urria

AMIA ANALISIA	3
INDARRAK	3
AHULEZIAK	4
MEHATXUAK	6
AUKERAK	6
JARDUERA-ILDOAK	8
LEHENTASUNA DUTEN JARDUERA-ILDOAK	11

AMIA ANALISIA

INDARRAK

Trebakuntza eta ikerketa

- Irakaskuntza babestu behar da. Interneten aroan ere, eskola ezinbesteko tokia da irakurketa sustatzeko. Baina irakurketa sustatzearekin batera, idazketa ere sustatu beharko litzateke.

Sorkuntza

- Sortzaile-kopuru handia dago (arte guztietan, oro har). Beren obra aintzat hartzen da eta ospe ona du, EAE barruan zein kanpoan. Autoreen belaunaldiak asko eta askotarikoak dira.
- Literatur sorkuntzaren emaitzek izugarri laguntzen diote gizartearen kohesioari eta izen onari, hizkuntza hobetzeari eta euskara batua kohesio-tresna izateari.

Ekoizpena

- Euskarazko argitalpenak bestelako obra ez-literarioetarantz bideratzen ari dira.
- Atzerriko obrak euskarara itzultzea bultzatzen ari da. Horrek euskararen garapen- eta normalizazio-prozesuan laguntzen du, baita irakurleek literatur eskaintza zabalagoa eta askotarikoagoa izan dezaten ere. Halaber, ama hizkuntzan literatur eredu berriak proposatzen dizkie idazleei.

Aipatzekoak diren bestelako alderdiak

- Euskal literatur errealitatea, estetikaren ikuspuntutik, askotarikoa da.

- Azken 25 urteetan asko aurreratu da literatur kopuruari eta kalitateari dagokionean, eta ez EAEn bakarrik.
- Beste literatur tradizioak ezagutzeko erraztasuna dute idazleek. Hori aberasgarria da oso sortze-lanerako, eta tradizioa gutxika garatzea ahalbidetzen du.

AHULEZIAK

Trebakuntza eta ikerketa

- Idazketaren presentzia aktiboa oso urria da hezkuntza-sisteman.

Sorkuntza

- Administrazio publikoek sorkuntza bultzatzen duten politikak abiarazten dituzte, baina koherentzia falta izaten dute politika horiek. Ondorioz, ahaleginak sakabanatu eta ahuldu egiten dira. Koordinazio ona egongo balitz, eragingarriagoak izango lirateke eta hobeto aprobetxatuko lirateke ahalegin horiek.
- Literatur jardunak EAEn tirabirak eta desadostasunak sortzen ditu batzuetan, eta horrek ez dauka zerikusirik literatur jardun logiko eta normalarekin, hizkuntzaren inguruko gorabeherak sortzen baitituzte.
- Literatur sorkuntzari laguntzak esleitzeko orduan ez dago oinarrizko irizpide komunik. Ez dago laguntzak esleitzeko plan orokorrik.
- Sortzaile berriei laguntzeko politika gutxi daude (laguntza horiek ez diote zertan kalterik egin ibilbide luzeagoko autoreen sustapenari).
- Literatur sorkuntzari eskainitako denbora eta hortik ateratako ordaina, gehienetan, ez dira orekatuta egoten, ez da dagokiona. Ospea eta errealtate ekonomikoa ez datoz bat.

Ekoizpena

- Hizkuntza bakoitzean ekoizitakoaren artean komunikazio gutxi dago, eta, ondorioz, eremu hertsia sortzen dira, beren artean inolako harremanik ez dutenak.
- Sorkuntza/produkzioa bultzatzeko politika publikoek asmo gutxi dute Euskal Herriko egoera linguistikoa integrazteko eta kohesioa lortzeko.

Banaketa eta erakusketa

- Bi hizkuntzetako (euskara eta gaztelania) hedatze-esparruek eremu komunak eta bakoitzaren eremuak eratzen dituzte. Hori kontuan izan behar da hedatze-politikak ezartzen direnean.
- Administrazio publikoak babestutako argitalpenen erabilera kontrolatuko duen instituzio-funtsen zerbitzu zentralizatu bat behar da. Argitalpen horiek gehienak ez dira ondo banatzen eta baztertu egiten dira.
- Internetek duen eskaintza zabala oso gutxi erabiltzen da euskal literaturan eta literaturaren arlo guztietan dagoen informazioa ezagutarazteko (sortzaileak, banatzaileak...). Egin den lana ekimen pribatuei esker izan da.
- Bi hizkuntzetako literatur errealtateari buruzko informazio gutxi dago komunikabideetan. Era berean, informatzeko era ere oso garrantzitsua da. Probetxu gutxi ateratzen zaie bideei eta tresnei; ez da egiten dena optimizatzen.

Kultur kontsumoa

- Egin izan diren galdeketez eta ikerketek erakusten dutenez, irakurketa-indizeek atzera egin dute. Ume gehienek irakurtzen dute, baina nerabe gehienek irakurtzeari utzi diote. Euskarazko irakurketaren kasuan, egoera are zailagoa da. Kultur sistema konplexuaren ondorioz gertatzen da hori; hitzak, humanitateak, garrantzia galdu dute.

Aipatzekoak diren bestelako alderdiak

- Hitzaren desertizazio-prozesu baten aurrean gaude, eta horrek adierazteko gaitasuna gutxitzea eta pobretzea dakar. Arazo horrek, hizkuntzari eragiteaz gain, komunikazioan kalteak sortzen ditu, eta, ondorioz, baita bizikidetzan ere.
- Gobernuak ez du inolako babesik ematen. Euskara ez da beste hizkuntzetara proiektatzen.

MEHATXUAK

Trebakuntza eta ikerketa

- Arriskua laguntza-neurrien kopuruan eta intentsitatean: 'atzerrian ikasteko trebakuntza-bekak' gisako laguntzek idazleak administrazioarekiko duen mendetasuna bultzatu dezakete, eta, hala, idazle-funtzionarioaren irudia sortu.

Aipatzekoak diren bestelako alderdiak

Euskara diglosi-egoeran dagoela onartzeak euskal literatura bigarren mailara eramatea dakar: Euskal literaturaren egileek beste literaturak ezagutzen dituzte, baina ez al da euskal literatura ezezagun bihurtzen ari beste literaturetako elementuak hartzeko joeraren erruz?

- Euskal literaturaren errealitatea ezagutu gabe jarraituko dugu, baldin eta ez bada euskal literatur sistemaren, eta, batez ere, euskal irakurlearen profilaren eta ekoizpenaren eta banatzearen ikerketa zehatza egiten; barne- eta kanpo-sustapena egin behar litzateke horretarako.

AUKERAK

Banaketa eta erakusketa

- Euskaldunak 'hizpide' bihurtu gara, eta, hori dela eta, euskal kultura eta euskal literatura hizpide bihurtu behar dira: itzuliz eta munduan zehar erakutsiz, Unibertsitatea eta diasporak erabiliz.
- Internetek eskaintzen dituen baliabideak erabili beharko lirateke euskal literatur sistema ezagutarazteko: ekoizpena, bitartekotza, harrera eta birsortzea.
- Azoketan euskal idazleak eta editoreak sustatzeaz gain, itzultzaileak, kritikariak, etab. sustatu behar lirateke.

JARDUERA-ILDOAK

1. Politikak, koordinazioa eta ekimen publikoak.

- Liburuaren kontsulta-organoa sortzea funtzio hauek betetzeko: literatura zentzu guztietan garatzeko beharrezko laguntzak bermatzea euskal obren sorkuntzari, bitartekotzari eta sustapenari eskainitako laguntzaren eta diru-laguntzen bidez (sorkuntza-bekak, zabalkundeko argitalpenei laguntzak, etab.). Horrez gain, ekimenak aztertu eta proposamenak egingo zaizkie, bai administrazioari zuzenean, bai literatur sorkuntza- eta zabaltze-munduko eragileei.
- Liburua babesteko politika publikoak ezartzea: alde batetik, informazioa, literatur eztabaida eta komunikabide publikoetan publizitatea, eta, bestalde, administrazioak sustatutako argitalpenak banatzeko eta merkaturatzeko politika eraginkorrak.
- Hezkuntzarekin elkarlanean aritu irakurletzak sortzeko.
- Hizkuntza-politika bat egon den moduan, itzulpen-politika batek egon behar luke, itzulpena ez baita tresna bat soilik; sorkuntza ere bada.

2. Baliabideak bultzatzea (trebakuntza, lana, lankidetzak, etab.).

3. Enpresa-egitura ordenatzea (informazioa, arauak, asoziazionismoa eta behin-behineko organismo eragileak).

- 'Idazleen Eskola' bakar bat sortzea, non bi literaturen (euskara eta gaztelania) beharrak aztertuko liritekeen eta irakurlea aintzat hartuko litzatekeen.

4. Produktu-irizpideak (nahi dena eta ahal dena) eta horiek euskararekin edo kulturarekin duten harremana.

- Hezkuntzarekin, Liburutegiekin eta EITBrekin elkarlanean, irakurketa sustatzeko eta laguntzeko kanpainak bultzatu behar liriteke.

5. Balio-katearen eta kudeaketaren alderdiak

5.1. Teknologia, I+G+B.

- Euskal idazleen datu basea sortu, internetetik sarbidea izango duena, baina, gainera, betiko metodoak erabiliz ere sar daitekeena: Euskal Herriko Unibertsitateko literatura-sailetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik edo EAEko edozein kultur zentro, liburutegi, eta kultur etxetatik, besteak beste. Halaber, hainbat arlotako informazioa (idazleak, artekariak, banatzaileak, ikerketak, etab.) jasoko duen web gunee bat sortzea aztertu beharko litzateke.

5.2. Sorkuntza.

- Idazle berriei laguntza eskaintzeko politikak bultzatzea ekintza hauen bidez: trebakuntza-bekak eta sorkuntza literarioko bekak ematea, autore-poltsak eta argitaletxei laguntza-poltsak ematea, betiere ibilbide luzeagoko idazleen sustapenari kalterik egin gabe.
- Sortze- eta editatze-laguntzen barnean, kontuan hartu behar lirateke euskal obrak beste hizkuntzetara itzultzeko laguntzak.

5.3. Produkzioa.

- Beharrezkoa izango litzateke orain arte produzitutakoaren eta gaur egun produzitzen denaren inguruko informazio guztia jasotzea.

5.4. Banaketa eta erakusketa.

- Merkatutik desagertu diren edo lortzen zailak diren kultur interes handiko obrak berriz argitaratzeko laguntzak ematea. Arreta handiagoa jarriko zaio kultur proiektuari merkatuan izango dituen aukerei baino.

5.5. Zabaltzea.

- Hezkuntza-sisteman kultur bizikidetzaren programak ezartzea, eta komunikabideek bi hizkuntzetan ekoizten den literaturari buruz berri ematea.

5.6. Kudeaketa-eredua hobetzea (ikastaroak, topaketak, aholkularitzak, hazitegiak, etab.).

6. Kultur kontsumoa dinamizatzea eta nazioarteko bihurtzea.

- EAetik kanpo korrespontsalia-sare bat abian jartzeko diseinua egitea (zentroak, agentzia pribatuak edo bateratuak) Europan dauden ereduari jarraituz (British Council, Goethe Institut, etab.). Renon (AEB) dagoen *Center for Basque studies* baliatuko litzateke mundu osoan euskal kulturaren eta literaturaren presentzia areagotzeko.
- Azoketan egotea bultzatzea eta erakusketak eta nazioarteko jardunaldiak antolatzea. Idazlea kanpoko merkatura ateratzen denean laguntza ematea, hau da, azoketan, jardunaldietan, etab. parte hartzen duenean, zein bere obraren aurkezpenetara joaten denean. *Literature across Frontiers* eta antzeko erakundeetara atxikitzea aztertu behar litzateke.

LEHENTASUNA DUTEN JARDUERA-ILDOAK

1. Euskal literatur proposamenak nazioartean zabaltzea. Horretarako euskal literaturako protagonisten web orriak (hainbat hizkuntzatan) sortu behar lirateke, bai eta haien obra literarioak mundu osoko liburutegi eta zentro berezietan egon daitezen bermatu ere.
2. Heziketa-programak idazketa sortzaileari buruzko ikastaroez eta tailerrez osatzea heziketako etapa guztietan, lehen hezkuntzatik unibertsitatera, ikasleak sortze-prozesuan murgil daitezen eta obra literarioekin harremana izan dezaten.
3. 'Literatur sorkuntzako euskal zentroa' bideragarria ote den aztertzea. Zentroak askotariko diziplinak eta erabilerak izango ditu. Europako zenbait herrialdetan dauden 'idazleen etxea' edo 'Literaturaren Etxea' gisakoa izango litzateke zentroa.
4. Ideia hau bultzatzea: euskal idazlea da EAEko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idazten duena. Gainera, bi hizkuntzetako ekoizpenen eta egileen arteko komunikazioa eta harremana sendotzea bultzatu nahi da.
5. Ekimenak, sariak, bekak eta diru-laguntzak bultzatzea, irizpideak bateratzeko eta literatur ekoizpenari laguntzeko diru-laguntza publikoak eraginkorki bideratzeko. Hala, bikoizketak saihestu, laguntza ekonomikoak banatu eta laguntza jaso duten obrak modu egokian zabalduko dira.